



## Pasaia-Ondartxo 2010-12-18

AURREKOA	PREVIO
<p>Bilkura San Pedroko Ikastolan burutu zen goizeko 10etatik eguerdiko 13ak arte.</p> <p>37 herritarrek hartu zuten parte eta kanpoko hiru aholkularik dinamizatu zuten.</p> <p><b>Eguneko ibilbidea</b> hauxe izan zen:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Sarrera</li><li>• Nola nahi dugu Ondartxo: irizpide orokorrak (taldekako lana - talde osoa)</li><li>• Eguneko balorazioa</li></ul>	<p>La reunión se realizó en la ikastola de San Pedro entre las 10:00 y las 13:00.</p> <p>Participaron 37 personas y contó con la facilitación de 3 dinamizadoras externas</p> <p>La <b>ruta del día</b> fue la siguiente:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Introducción</li><li>• El Ondartxo que queremos: criterios generales (trabajo de grupos y plenario)</li><li>• Valoración del día</li></ul>

SARRERA	INTRODUCCION
<p>Iristen ziren heinean, erregistratzen joan ziren parte-hartzaileak eta posta elektronikoz memoria jaso ez zutenei aurreko bilerako memoria banatu zitzairen.</p> <p>Era berean, aurreko saioan azaldutako zalantzei eta eskaerei erantzunez, Ondartxoren jabetzaren inguruko informazioa eta Ontziola zer den azaltzen duena banatu ziren.</p> <p>Eguneko ibilbidea aurkeztu zen orokorrean.</p> <p>Ondoren taldeari zutik jartzeko eskatu zitzaion eta aipatzen ziren irizpideen arabera gelan zehar kokatzeko bakoitzaren posizioa adieraziz: asko, erdizka edo gutxi.</p> <p>Lehenengo 3 azpi-taldeak "<u>tamainaren</u>" arabera egin ziren eta gelan zehar mugitzeko eta ariketa ulertu ahal izateko balio izan zuen.</p> <p>Ondoren galdera honen inguruan posizionatzeko eskatu zitzairen: "<u>Ondartxo bere onera ekartzea posible izango dela uste duzu?</u>" Askok pentsatzen zuten pertsonen nahiko talde handia sortu zen eta antzeko bi talde (jende gutxiagorekin nahiz eta jende dezente izan) sortu ziren <u>erdizka</u> posible izango dela pentsatzen dutenekin eta <u>gutxi</u> pentsatzen dutenekin.</p> <p>Segidan "<u>begien kolorearen</u>" arabera kokatu behar izan zuten beraien burua eta ariketari umorea eman zion.</p> <p>Bukatzeko jendeari galera honen inguruan kokatzeko eskatu zitzaion: "<u>Erabakitzen duguna bultzatzeko prest gaude? Zein neurritan?</u>". la talde guztia <u>asko</u> puntuari kokatu zen.</p> <p>Ariketa bukatu aurretik, posizionamendu horrek oso egoera positiboa adierazten zuela aipatu zen. Izan ere, jende askok Ondartxo benetan bere onera ekartzea zaila</p>	<p>Al llegar, cada persona se fue registrando y se fue entregando la memoria de la reunión anterior a aquellas personas que no la habían recibido por correo electrónico.</p> <p>También, en respuesta a dudas y demandas formuladas en la sesión anterior, se distribuyeron dos hojas de información sobre la propiedad de Ondartxo y sobre qué es Ontziola.</p> <p>De manera general se hizo una presentación de la ruta del día.</p> <p>Posteriormente se pidió al grupo que se pusiera de pie y se le pidió que a partir de los criterios diferentes que se fueran nombrando, cada persona se fuera posicionando en correspondencia a mucho, mas menos y poco, según lo considerara adecuado en su caso.</p> <p>Los primeros 3 sub - grupos que se hicieron fueron por "<u>tamaño</u>", lo que sirvió para moverse y comprender el ejercicio.</p> <p>Posteriormente se pidió a la gente que se agrupara a partir de "<u>¿Hasta que punto creemos que será posible regenerar Ondartxo?</u>" Lo que arrojó un sub – grupo relativamente grande entre las personas que creían <u>mucho</u> que fuera posible y dos grupos similares (con relativamente bastante gente aunque un poco menos) de las personas que creían <u>a medias</u> que fuera posible y los que lo creían <u>poco</u>.</p> <p>El siguiente criterio fue el "<u>color de los ojos</u>", que generó un cierto movimiento y puso un toque de buen humor al ejercicio.</p> <p>Finalmente se pidió a la gente que formara los 3 sub – grupos a partir de "<u>¿Hasta que punto estamos dispuestos a impulsar lo que decidamos?</u>" Lo que hizo que prácticamente la totalidad del grupo se posicionara en el punto del <u>mucho</u>.</p> <p>Antes de dar por concluido el ejercicio se comentó que ese posicionamiento reflejaba una situación muy positiva, ya que, aunque la gente que no confiaba demasiado que</p>



izango dela pentsatzen badu ere, hori lortzeko lan egiteko prest agertu zen.

Ondartxo se pudiera efectivamente regenerar, de todas maneras estaba muy dispuesta a trabajar para que se lograra.

LANTALDEKO LANA	TRABAJO DE GRUPO
<p>Pertsona bakoitzari Ondartxoren erabilerarekin lotutako irizpide posibleen sintesia jasotzen zuen orria banatu zitzaion, aurreko bilerako emaitzak oinarri hartuta.</p> <p>Sintesi-orriko puntuak adosteko zeudela gogoratu zen, bilketa- eta sintesi-lan baten emaitza baizik ez zela. Horregatik elkarren artean kontraesanean egon zitezkeen hainbat puntu.</p> <p>Horixe izango zen, hain zuzen, azpi-taldeen eginkizuna: orria errebisatu, behar zen gaien inguruan eztabaidatu eta adostasuna lortzen saiatu, puntuak xahutu eta talde bezala posizionatuz. Posizio desberdinak egonez gero, plenariora ekarriko liriteke eta bertan jarraituko litzateke eztabaida, denen artean erabaki batera iritsiz.</p> <p>Ondoren azpi-talde bakoitza gela batera joan zen lan egitera.</p> <p>Taldeko lana bukatu ondoren, kafea gailera batzuekin hartzeko tartea hartu zen.</p>	<p>A cada persona presente se le distribuyó una hoja con la síntesis de los posibles criterios generales sobre los usos de Ondartxo que se habían elaborado a partir de los resultados de la reunión anterior.</p> <p>Se aclaró que todos los puntos de la hoja de síntesis no estaban todavía consensuados, y más bien eran un esfuerzo de recopilación y síntesis y que por eso podía haber puntos que estuvieran en contradicción entre ellos.</p> <p>Sería exactamente ese el trabajo de los sub – grupos: revisar la hoja, dar el debate donde fuera necesario y tratar de lograr un consenso, depurando los diferentes puntos y posicionándose como grupo. En caso de mantenerse posiciones diferentes se traerían a la plenaria donde seguiría el debate y entre todos/as se decidiría.</p> <p>Posteriormente cada sub – grupo se fue a trabajar a un cuarto diferente.</p> <p>Una vez finalizado el trabajo de grupo, fue el momento para tomar un café y algunas galletas.</p>
	PLENARIA
<p>Plenariora osatu zen berriz ere eta irizpideak banan bana berrikusi ziren lantaldeetan landutakoa kontuan hartuz.</p> <p>Irizpide bakoitzean talde bakoitzak bere ondorioa aurkeztu zuen eta 3 taldeetan adostasuna zegoen kasuetan, ontzat ematen zen (adostutako puntua orri batean idazten zen).</p> <p>Desadostasunak zeuden puntuen inguruan eztabaida irekitzen zen, ezberdintasunak adierazi eta eztabaidatzeko, adostasuna bilatzeko helburuarekin. Irizpidea birformulatu egiten zen guztien adostasuna bilatze aldera eta hau ere erregistratu egiten zen.</p> <p>Adostasunik ezean, posizio ezberdinak erregistratu egiten ziren.</p> <p>Orain arte Ondartxoren erabilerarekin lotutako irizpideen inguruan aurreratutakoa honakoa da:</p> <p><b><u>Orain arte adostutako irizpideak hauek dira:</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Gure ondarea da.</b> Herriaren ondarea denez, desafektatu egin behar dela gehitzen da eta Udalak, traba jakinik ez balego behintzat, desafektatzeko eskatu behar lukeela, Portuak gune hau kudeatzeari utzi eta Udalak kudeaketa bere gain hartzeko.</li> <li>• <b>Gure erabakiarekin azkeneraino joan: adostasuna lortu eta ondoren defendatu.</b></li> </ul> <p>Adostasunik lortzen ez bada eta azkenean erabakia</p>	<p>Se conformó nuevamente la plenaria y se fueron revisando los criterios generales uno por uno a partir de lo que había trabajado cada grupo.</p> <p>En cada criterio cada grupo presentó su conclusión y de existir consenso en los 3 grupos se daba por asumido (se escribía en hoja de papel el punto consensuado).</p> <p>De existir divergencias se abría un espacio para expresar y debatir las diferencias y se trataba de buscar un consenso, incluyendo una nueva formulación del punto que pudiera satisfacer a todos/as. También se registraba.</p> <p>De no lograrse se registraban las dos, o más, posiciones diferentes.</p> <p>Lo avanzado hasta la fecha de cara a los criterios en los que nos basaremos para definir el uso o los usos de Ondartxo es lo siguiente:</p> <p><b><u>Los criterios consensuados hasta ahora son:</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Es nuestro patrimonio.</b> Se añade el hecho de que, al ser patrimonio del pueblo, debe desafectarse y el ayuntamiento, si no hubiesen impedimentos económicos concretos, debería solicitar su desafección, para que el Puerto deje de gestionarlo y lo pase a gestionar el ayuntamiento.</li> <li>• <b>Ir con nuestra decisión hasta el tope: lograr un consenso y luego defenderlo.</b></li> </ul> <p>En caso de que no se logre un consenso y la decisión</p>



gehiengoz hartzen bada, pertsona batzuen gustukoa ez dena, pertsona hauek erabakia onartu eta errespetatuko dute talde gisa. Hala ere, erabakiaren arabera, ez dute erabakiaren defentsa aktiboa egiteko konpromisoa hartuko.

- **Itsas-ibarraren inguruan eztabaidatu behar da eta honen berreskurapena zehaztu**, bidea ere kontuan hartuta eta mendialdearekin duen lotura.
- 4, 8, 10 eta 16 irizpideak elkarren artean erlazionatuta daudela aipatu da:
  - «Bere izaera naturala berreskuratu eta mantentzea garrantzitsua da...»
  - «Naturala ondo dago, baina errealitatea ikusi behar da...»
  - «Gune naturala izan dadila...»
  - «Naturala izan dadila (ormigoia kendu) edo bere onera ekar dezagula...». Irizpide hauek irizpide bakarrera ekartzea beharrezkoa zela aipatu zen.
- 4. irizpidean gauza asko aipatzen dira eta honela jasotzea adostu zen:

**Inguruarekin errespetuz jokatzeko. Bertan aktibitatearen bat ezarriko balitz, ingurumena errespetatu beharko luke.**

- 12. irizpidea moldatu egin da, adostasunera iritsiz: **Gure bizimodua eta bizi-kalitatea hobetzea eta aberastea. Aktibitate ekonomikoren bat sartzea inguruarekin bat datorrena, industrialia ez dena, lagungarri izan dadin.** (Ezer eduki ezean, ez dio herriari ezer eskaintzen)
- Hurrengo irizpidea ere adostu zen: **Kanpoko jendea erakarriko duten erabilerak bultzatzea (turismoa), baina ez edozein modutan.** Ondoren zetorrena kentzea adostu da: kanpotik jendea erakartzeak eragin negatiboa izango du sanpedrotarren (batez ere, gunearen aprobetxamenduan).
- Ez genuen 17. eta 18. irizpideak lantzeko nahikoa denborarik izan. Orokorrean, 17.aren aldeko apustua egin zen: **Urte guztian aprobetxatzeko / erabiltzeko gunea izan dadila (aisialdiko eta jolaseko gune gisa);** baina beste irizpidearen inguruan ere adostasuna dagoela dirudi: **udako leku gisa berreskuratzea.**

**Hurrengo irizpideen inguruan posizionamendu ezberdinak egon ziren eta ez zen adostasunera iritsi:**

- 5. eta 6. irizpidea elkartzea adostu zen: **San Pedroko jendearen beharrei erantzun behar die, beratar datorren jendea ahaztu gabe.** Bi posizionamendu daude: batetik, bereziki San Pedroko beharrei erantzun behar diela ikusten da eta bestetik, berriz, Pasaiako eta inguruko beharrei (San Pedro, Trintxerpe,

que se tome al final sea por mayoría y no consiga el agrado de algunas personas, éstas aceptarán y respetarán la decisión tomada como grupo, aunque en dependencia de la decisión, no se comprometerían en una participación activa en su defensa.

- **Se debe discutir y definir la regeneración del conjunto de la vaguada.** Incluyendo el camino y su conexión con el monte.
- Se comenta que el criterio número 4, 8, 10 y 16 están relacionados:
  - «Importancia de recuperar y mantener su carácter natural...»
  - «Lo natural bien, pero hay que bajar a la realidad...»
  - «Que sea un espacio natural...»
  - «Que sea natural (quitar hormigón) o lo regeneremos...»Y que es necesario integrarlos y reformularlo en un solo criterio.
- En el criterio número 4 se mencionan muchas cosas y se acuerda por consenso recoger el siguiente criterio:

**Ser cuidadosos y cuidadosas con el entorno. La eventual actividad que se instale debe respetar el medio ambiente y natural.**

- Se ha modificado el criterio 12, llegando a consenso: **Mejorar nuestro modo de vida, calidad de vida y enriquecerla. Introducir alguna actividad económica que sea en todo caso acorde con el entorno, que no sean industriales, para que ayude algo.** (Sin nada, no ofrece nada al pueblo)
- Se ha consensuado también el siguiente criterio: **Fomentar usos que atraigan a gente del exterior (turismo), pero no de cualquier manera.** Y se ha decidido quitar la siguiente parte: Atraer gente de fuera repercutirá negativamente en el aprovechamiento que los y las sanpedrotarras podrán hacer del lugar.
- No hemos tenido tiempo suficiente para trabajar los criterios 17 y 18. En general, hay una apuesta por el 17: **Que se pueda aprovechar durante todo el año (como zona de ocio y recreo);** pero parece haber acuerdo en que también se puede **recuperar como zona de veraneo.**

**Hubo posicionamientos diferentes y todavía no consensuados en los siguientes criterios:**

- Se acuerda agrupar el criterio número 5 y 6: **Debe responder a las necesidades de la gente de San Pedro, sin olvidar a la gente que viene.** Hay dos posicionamientos: por un lado se plantea que debe responder, principalmente, a las necesidades de San Pedro, por el otro a las necesidades de Pasaia y el



Bidebieta...).

Lehenengo planteamenduak, Ondartxok San Pedroko behar nagusiei, bizitzako beharrei, erantzun behar diela proposatzen du.

Bigarren planteamenduak, Pasaia oro har arazo komunak dituela nabarmentzen du eta, gainera, konponbide orokor eta integratua eman behar zaiola. Pasaiaaren egoeraren inguruko ikuspegi orokorra mantendu behar da eta beste puntu batzuetako interbentzioak ere kontuan hartu, Ondartxoren erabilera zehazterako orduan.

Ondartxon "egin" nahi dena zehatzago definitzerakoan kontrajarririk azaltzen diren posizionamendu hauek izaera hori galduko dutela hausnartzen da, hain zuzen ere hartzen diren erabakiak, antzekoak edo osagarriak izan daitezkeenez, San Pedroko eta inguruko beharrei erantzungo dieten neurian orain kontrajarririk azaltzen direnak ez dira horrela ikusiko.

- 7. eta 9. irizpideen inguruan posizio ezberdinak zeuden abiapuntuaren inguruan. Dagoeneko existitzen dena aintzat hartu behar ote den edo, alderantziz, dena kendu eta zerotik hasi behar ote den zen eztabaida. Gune horretan benetan zer egin nahi den zehaztu gabe honetaz hitz egitea hutsala edo alferrikakoa dela ikusita, irizpidea birformulatu zen, adostasunera iritsiz: **Existitzen denak ezin du baldintzatu egin behar dena. Egingo duguna pentsatu eta erabakitzeke ezin ditugu baldintzak jarri. Aurrebaldintzarik gabe pentsatu behar dugu, gugandik abiatuz, zerotik. Azkenean hartzen den erabakiak esango du egun dagoena kendu behar den, moldatu edo mantendu.**

Hala ere, egun dagoena kontuan hartzea batzuentzat garrantzitsua da espazioaren erabilera birformulatzerakoan eta, beste batzuentzat, libreki pentsatzea galarazi dezakeen traba bat da.

Zehazki egin nahi denaren inguruko eztabaidan saiaturiko da adostasuna lortzen.

- 13. irizpideak ("bertakoentzat lan-aukerak") eztabaida eta posizio kontrajarririk sortu ditu. Aipatu da legalki ezin dela bertako jendearen eta kanpokoaren artean ezberdintasunik egin, lanpostu bat eskuratzeko orduan. Horren aurrean, irizpide bat adostera hurbildu da: **Aktibitate ekonomikorik balego, honek San Pedron eragin zuzena eta positiboa izango du.** Dena den, ez zen adostasun totala izatera iritsi. Lanpostuak herriko jendearentzat izango direla ezartzeak ikuspegi legaletik zer sor dezakeen azalduko da.

entorno (San Pedro, Txintxerpe, Bidebieta...)

Desde el primer planteamiento se plantea que primero se tienen que ver las necesidades principales, vitales, que actualmente tiene San Pedro y Ondartxo debe responder a ello.

Las personas que defienden el segundo planteamiento subrayan que Pasaia en general tiene problemas comunes y que, además, se tiene que dar una solución general integrada. Hay que mantener una perspectiva general de cómo está Pasaia y las actuaciones en otros puntos, para definir el uso concreto de ese emplazamiento.

Se analiza que al definir de manera más precisa lo que se quiere "hacer" en Ondartxo, los posicionamientos pueden dejar de ser posicionamientos encontrados, en la medida en que las decisiones que se tomen respondan a las necesidades de San Pedro y de sus alrededores, bien porque sean similares o complementarias.

- Existen posicionamientos diferentes respecto a los criterios 7 y 9, en lo referente en que si hay que partir de lo que actualmente existe o se debe quitar todo para empezar de cero. Viendo que debatir sobre esto sin antes acordar qué es lo que se quiere hacer, sin saber si lo que actualmente existe condicionará el uso que se le decida dar, puede volverse sin mucho sentido, se reformuló el criterio, consiguiendo llegar a consenso: **Lo existente no tiene que condicionar lo que se tiene que hacer. No nos podemos poner condicionantes para pensar y decidir lo que vamos a hacer. Tenemos que pensar sin ningún condicionante previo, partiendo desde nosotros/as, desde cero. La decisión que se tomó indicará si hay que quitar lo que actualmente existe, modificarlo o mantenerlo.**

Sin embargo, para algunas personas es importante tomar en cuenta lo que ya existe en el momento de reformular el uso del espacio y para otras se trata de un obstáculo que puede impedirnos pensar de manera libre.

Será en el momento del debate sobre lo que se quiere hacer concretamente que se tratará de buscar consenso.

- El criterio 13, "opciones de trabajo para la gente local" ha generado debate y posiciones diferenciadas. Se ha subrayado que legalmente no se puede establecer una diferenciación entre gente local y no, para el acceso al trabajo. Ante ello, se ha aproximado un criterio de consenso: **Si existe una actividad económica, está debe repercutir de forma positiva y directa en San Pedro.** Sin embargo no se logró todavía un consenso pleno. Se confirmará la ilegalidad o menos de que se pueda definir los trabajos para gente del pueblo.



<p>Ordura arte aurreratutakoa ikusita eta oraindik prozesua bukatzeke zegoela baloratuta, guztiak ados agertu ziren prozesua bukatzeko beste bilera bat egitearekin.</p> <p>Horretarako Maider Ziganda, Pasaiaiko alkatea, eta Obdu Lorenzo, Parte Hartzeko Demokrasiako zinegotzia, deitu ziren (ez zuten lantaldeetan eta plenarioan parte hartu) eta prozesua jarraitzeko asmoa azaldu zitzairen.</p> <p>Oso irekiak azaldu ziren eta adostasuna agertu zuten proposamenarekin. Era berean, prozesua jarraitu ahal izateko baliabideak eta erraztasunak ematen jarraitzeko konpromisoa adierazi zuten.</p> <p>Urtarrilaren 8ko data ezarri zen hurrengo bilera egiteko, ordura arteko ordutegia mantenduz.</p> <p>Bileran parte hartu zuten guztiei bilerako memoria helarazteko konpromisoa mantendu zen.</p> <p>Parte-hartzaile batek orain arte adostutakoari zabalpen publikoa ematea proposatu zuen eta Udalak herritarrekin komunikazioa bultzatzen jarraituko duela adierazi zuen eta hau nola egin berraztertzea adostu.</p>	<p>Viendo los avances tenidos y que a la vez todavía no se había concluido el proceso, todo el grupo estuvo de acuerdo en que era necesario reprogramar otra reunión de cara a terminar.</p> <p>Para eso se pidió a Maider Ziganda, alcaldesa de Pasaia, y Obdu Lorenzo, Concejala de Democracia participativa, que no participaron en el trabajo de los grupos, ni del plenario, que se hicieran presentes y se les explicó la intención de continuar con el proceso.</p> <p>Hubo apertura total de las personas del ayuntamiento para que se continuara el proceso y su compromiso a seguir facilitando los recursos logísticos y de facilitación para que así fuera.</p> <p>Se estableció una nueva reunión par el día 8 de enero, con los mismos horarios.</p> <p>Se mantiene el compromiso de hacer llegar la memoria de esta reunión a todas las participantes antes de dicha fecha.</p> <p>Por una participante se solicitó dar difusión pública a lo consensuado a la fecha y desde el ayuntamiento se respondió que seguirían promoviendo la comunicación con la ciudadanía y se acordó revisar cómo hacerlo.</p>
---	--

<b>EGUNEKO BALORAZIOA</b>	<b>VALORACION DE LA JORNADA</b>
<p>Saioa baloratzeko, parte-hartzaileei irizpide ezberdinen arabera beraien gogobetetze-maila adierazteko esan zitzairen, txaloen bidez, hau da, txaloak intentsuago edo suabeago eginez.</p> <p>Txalo-zaparrada bakoitzaren ondoren, horren inguruan aipamenak egiteko aukera irekitzen zen.</p>	<p>Para finalizar la jornada, se pidió a las personas participantes, que se fuera valorando la jornada a partir de los diferentes criterios y a través de aplausos más o menos intensos según del grado de satisfacción de cada cuál con ese criterio.</p> <p>Al finalizar cada aplauso se abría un breve momento para comentar.</p>
<b>GIROA</b>	<b>AMBIENTE</b>
Oso ongi	Muy bien
<b>METODOLOGIA</b>	<b>METODOLOGIA</b>
<p>Ongi.</p> <p>Hainbat gauza aipatu ziren:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gaur landu ditugun datuak findu gabe zeuden.</li> <li>• Bai, findu gabe zeuden, nahita. Lanketa hemen egiteko.</li> <li>• Benetako debatea atzeratzen ari gara.</li> <li>• Ez, pausoz pauso goaz.</li> <li>• Entzuten ikasten ari gara, positiboa izan da.</li> </ul>	<p>Bien.</p> <p>Se comentaron algunas cuestiones:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Los datos con los que hemos trabajado no estaban afinados.</li> <li>• Estaban sin afinar queriendo para hacer el trabajo aquí.</li> <li>• Estamos retrasando el verdadero debate.</li> <li>• No vamos paso a paso.</li> <li>• Estamos aprendiendo a escuchar y ha sido positivo.</li> </ul>
<b>ESPEKTATIBEN BETETZE-MAILA</b>	<b>¿SE ESTÁN CUMPLIENDO TUS ESPECTATIVAS?</b>
Oso ongi	Muy bien

